


# *Lore-koroa neure herriari*

Andolin Eguzkitza



**CUENTOMETRAJES 3**

*Liburuaren Eguna ospatzeko egindako argitalpena.  
Edición realizada con motivo del Día del Libro.*

---

Apirilaren 23a, Done Jurgi zaindariaren eta Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko Andolin Eguzkitzaren hamabi olerki jasotzen zituen liburuska argitaratu zuen iaz Udal Liburutegi Sareak. Olerkion gaztelerazko itzulpena Andolin Eguzkitzak berak egin zuen eta herriari eskaini nahi izan zion.

Tamalez, aldegin digu Andolinek. Bigarren argitalpena egin dugu bere omenez. Xabier Kintanak, lagun eta Euskaintzaindian lankide zuenak, egin dio hitzaurrea eta gaur, 2004ko apirilaren 23an eskaintzen diegu santurtziarrei. Egin ahal dugun omenaldi handiena irakurtzea izango da, horrek emango digun plazerraz gain.

Myriam Frade Espinosa

Kultura, Emakume eta Herritarrekiko Harremanetarako Zinegotzia

SANTURTZIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI  
BIZKAIA



KULTURA ARLOA  
AREA DE CULTURA

---

*El pasado año y para celebrar el día 23 de abril, fecha en que coinciden la festividad de San Jorge, nuestro patrono, y el Día Mundial del Libro, distribuimos a través de la Red de Bibliotecas Municipales una publicación que recogía doce poemas de Andolin Eguzkitza, cuya traducción al castellano realizó el mismo autor y que quiso dedicar a su pueblo.*

*Tristemente, Andolin no está ya con nosotros. En su recuerdo hemos realizado esta segunda edición, enriquecida con prólogo de su amigo y compañero en Euskaltzaindia, Xabier Kintana, que hoy 23 de abril de 2004, ofrecemos a los/las santurtziarras. Además de un placer, su lectura constituirá el mejor homenaje que podemos rendirle.*

*Myriam Frade Espinosa*

*La Concejala del Area de Cultura, Mujer y Relaciones Ciudadanas*

SANTURTZIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI  
BIZKAIA



KULTURA ARLOA  
AREA DE CULTURA

*Edita: Santurtziko Udala  
Ayuntamiento de Santurtzi  
Bizkaia*

*© Santurtziko Udala. Ayuntamiento de Santurtzi*

*Impresión: Grafilur, S. A.*

*Depósito Legal: BI-975-04*

ANDOLIN  
EGUZKITZA

LORE-KOROA  
NEURE HERRIARI

Hitzaurrea: Xabier Kintana

Prólogo de Xabier Kintana

2. argitalpena/edición

**CUENTOMETRAJES 3**

SANTURTZIKO UDAL LIBURUTEGI SAREA  
RED DE BIBLIOTECAS MUNICIPALES DE SANTURTZI

---

## SARRERA HITZAK

*Verba volant, scripta manent* zioen latinezko esaera zaharrak, hitzak maiz hai-zearen jostailu izan arren, behin idatzi eta gero iraunkorrak izaten direla adieraz-teko, eta Andolinen bertso hauek berrirakurtzean, molditzekin batera, belarriira haren boz ahantzzezina ere datorkigu gogora, berak, mintzatzean, berbak, jaki gisa, dastatzen baitzituen, bakoitzaren ezaugarri fonetiko eta optikoen zaporeaz goza-tuz. Izan ere, Andolinek, hemengo eta hango euskararen, autore honen eta haren altxorreko lexikoaren jakile ona zela eta, ongi menderatzen zituen hitz bakoitza-ren esangura bitxi eta konnotazio bereziak.

Esandakoagatik, gustatu egiten zitzaion toki eta denbora ezberdinetako hitzak testu berean elkartu, parekatu eta ezkontzea, guztiek euskaldun guztion ondare lexikal historikoa osatzen dutelakoan, eta hasieran arrotz eta ezohiko gerta zite-keena, euskal irakaskuntzaren ondorioaz, gero eta normalago gertatzen ari da, berak egindako etorkizun-apustuari arrazoia emanez.

Baina formazko kontsiderazioez landa ere, Andolinen poemek barnetik bere bizipenen oihartzun garbia ere eskaintzen digute. Egileak, mundu zabal eta urru-nean egindako bidaietan ikusiriko tokien eta pertsonen izenak berak poesigai bihurtzen ditu, ingurune, giro eta bizimodu ezberdinen aieruz aserik. Izan ere, A. Eguzkitzaren poesian, paisaien itxurazko deskribapenen ostean, gehienetan behintzat, gizakiaren eta giza sentimenduen presentzia ageri da: nostalgia, maita-suna, ahantzura, dolua, adiskidetasuna, haustura, urruntzeagatiko mina...

Andolinek euskal letrei eginiko ekarpenik handiena, segur aski, sentiberatasu-na da, baina ez sentimenduen isuri eri, ahul eta belaxka, gizonki bezain gozoki adieraziriko sentipen uholde bortitza baizik. Eta gure artean ez du arlo horretan aitzindari askorik ukan. Egia da, neurri batean bederen, Lizardiren poesia inpre-sionista lagungarri gerta zekiokela, baina Andolinen bizipoza urrunago doa, eta bestelako bideak urratzen dizkigu, beti ere barne bizitzaren jario iheskorriari hel-du nahirik.

Aldi berean, pertsonen arteko harremanei datzekion afekziozko loturak, adiskidetasunezkoak bereziki, euskaraz ia inoiz ez bezala azaltzen ari zaigu bere obran, eta horretarako irakurlea gertaeren leku eta giroan kokatzen saiatzen da. Beti ere berak hainbeste estimatzen eta praktikatzen zuen xalotasun zoragarriaz, errealitatea haur harrituaren begiekin ikusi eta bizitzaren aspaldiko eskarmentua daukanaren barkaberatasunaz juzgatuz. Eta berriz ere, ingurumen horren deko-razioa antolatzeko orduan, hitzez baliatzen da, berba aiprosen eta iradokiga-

---

## PALABRAS DE PRESENTACIÓN

Según dice un antiguo adagio latino, *verba volant, scripta manent*, las palabras suelen ser juguete del viento, mientras que lo escrito permanece, y así, al releer los versos de Andolin, al tiempo que las palabras nos viene igualmente a la memoria su voz inolvidable, ya que al hablar, a veces parecía que paladeaba el idioma, gozando de las características fonéticas y ópticas de sus términos. Su buen conocimiento de las distintas variedades del euskara, así como de los diferentes registros y autores, le daba la posibilidad de calibrar el significado exacto de cada palabra y de sus especiales connotaciones.

Le gustaba entremezclar en un mismo texto términos de procedencia geográfica y temporal muy dispar, sintiendo que todos ellos conforman el patrimonio léxico histórico común de todos los vascos. Eso, que al principio ello podía parecer un tanto artificial y fuera de lo corriente, como consecuencia del avance en la enseñanza del euskara, se percibe cada vez más como algo normal, confirmando su decidida apuesta por nuestro futuro.

Pero aparte de estas consideraciones formales, los poemas de Andolin, en su fondo, nos ofrecen un sonoro eco de sus vivencias. El autor sabe transformar en materia poética los nombres de personas y lugares que ha conocido en sus viajes a través del mundo, recreando esos lejanos espacios, ambientes y formas de vida. En realidad, en la poesía de A. Eguzkitza, tras las aparentes descripciones de los paisajes, casi siempre nos topamos con la presencia humana y sus sentimientos: la nostalgia, el amor, el olvido, el duelo, la amistad, la ruptura o el dolor causado por la separación o la ausencia.

Seguramente la aportación más importante de Andolin a las letras vascas es su sensibilidad, una sensibilidad que no se traduce en una mera efusión débil y enfermiza de sentimientos blandengues, sino en un poderoso torrente de vivencias personales expresadas de una forma a la vez vigorosa y delicada. Y en este camino no ha tenido demasiados precursores entre nosotros. Es cierto que le ha podido servir de ayuda la poesía impresionista de Lizardi, pero la alegría de vivir de Andolin va más allá, y nos abre nuevas sendas, esforzándose siempre en aprehender ese huidizo fluir de la vida interior.

Al mismo tiempo, su particular sensibilidad le lleva a reflejar en su obra las relaciones afectivas inherentes a las relaciones humanas, especialmente las de amistad, de una manera nada frecuente en la literatura vasca, y para ello sabe trasladar al lector al lugar y al ambiente del relato. Siempre con esa ingenuidad que

---

rrienak trebeki hautatuz, gure gogo zeharkatu, zentzuak kilikatzen edota bihotza ongienik uki ditzakeen esaldiak brodatzeko. Ondorioa garbi dago: eguneroko hizkeratik gehiegi urrundu gabe, kontakizuna jazo zeneko osagarriak begi-belarrien bidez barneratzen digu, gu ere gertaera edo egoera horien lekuko zuzenak izan gaitezen.

Mundu zabaletik ibili zitzaigun Andolin, hiritar eta lekuko unibertsal gisa, beste kultura eta hizkuntzei beti ere irekia, eta tokian tokikoekin artez beren berbetetan mintzatzen jakin zuen, bai euskaraz eta bai gainerako erdara nagusiez ere: gaztelaniaz, frantsesez, alemanez, ingelesez, katalanez zein italieraz. Asko ikasi zuen kanpotik, eta han bildua bere herrikooi ematen saiatu zen, gure hizkuntza landuz eta trebatuz.

Atzerriratzeak, ordea, ez zion inoiz bere jatorrizko nortasuna zapaldu; aitzitik, hura berretsi eta hartan irmotu zen, bere herria eta herkideak behin ere ukatu gabe. Eta herrialde guztietan toki onak baziren ere, berari ere bihotzak Euskal Herriratzeko errepikatzen zion, eta bertan, zalantzarik gabe, Santurtziko kresal usainak lilura bereziaz erakartzen zuen.

Oreka egokia lortua zuen, bertoko eta kanpoko balioen artean, berauek metatzen, biltzen eta osatzen jakin baitzuen, bereak baztertzen eta bere burua ukatzen ibili barik. Eta horrek, azken buruan, etxekoan zein atzerrikoen onespenekarri dio, inork ez baitu haren obran bere burua gutxietsirik kausituko.

Xabier Kintana Urtiaga. *Euskaltzaina*



---

él tanto estimaba y practicaba, que le hacía observar la realidad con los ojos asombrados de un niño, juzgándola con la comprensión indulgente de quien lleva a sus espaldas una larga experiencia vital. Y una vez más, a la hora de confeccionar el decorado ambiental se sirve de la palabra, seleccionando los términos más apropiados y sugerentes, a fin de tejer con ellos, frases que nos traspasan la mente, que halagan nuestros sentidos o nos hieren el corazón. El resultado salta a la vista: sin apartarse demasiado del lenguaje cotidiano, por medio de recursos visuales y auditivos consigue introducirnos plenamente en el relato, para que seamos testigos o cómplices de lo acontecido.

A él mismo, como ciudadano universal, le tocó ser testigo excepcional de nuestro mundo. Abierto siempre a otras culturas, a las que supo acceder en trato directo con sus gentes, gracias a su envidiable conocimiento de lenguas. Tanto en vasco como en castellano, francés, alemán, inglés, catalán e italiano. Fue mucho lo que aprendió de todas ellas y también se esforzó en transmitirnos a sus paisanos su particular cosecha, al tiempo que cultivaba y ampliaba las posibilidades expresivas de nuestro idioma.

Sin embargo, sus largas estancias en el extranjero nunca le hicieron avergonzarse de su origen, de su pueblo o de sus conciudadanos, sino que afianzaron sus convicciones. Así, aunque, recordando a Iparragirre, en todos los países hay hermosos lugares, también a él le pedía el corazón regresar a Euskal Herria, donde, sin lugar a dudas, el olor a salitre de su Santurtzi natal le fascinaba de manera especial.

Consiguió un feliz equilibrio entre los valores propios y ajenos, ya que supo sumar, acumular y completarse con todos ellos, sin tener que renunciar a lo propio o negarse a sí mismo. Así, en última instancia, consiguió el respeto, la admiración y el cariño de propios y extraños, pues nadie que conozca su obra se verá rechazado en ella.

Xabier Kintana Urtiaga.

*Miembro de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca*



Santurtzi nore  
gerbera; bihotze eta  
esperantzare euskera,  
mantatua eta orkatasuna  
aurera joazko bai lino behi.  
~~Dudaki Euskera~~

Egilearen eskaintza "Mila urte igaro eta, ura bere bidean" liburuan.  
Jabea: Santurtziko Liburutegi Nagusia

"A mi gente de Santurtzi, de corazón y con esperanza porque el euskera,  
el amor y la libertad avanza siempre"  
Dedicatoria del autor en su obra "Mila urte igaro eta, ura bere bidean",  
propiedad de la Biblioteca Central de Santurtzi.

---

# I

## Haizea

Haizea delarik sendo,  
aurrera joatearen antzo  
da  
bakardadea,  
neguan, hotz hotzik oihanaldea  
hartzearen  
ereinotz usanbera.

Haizea delarik sendo,  
kantatzea bezala  
da  
bakardadea,

kaleetako zaratotsetan  
entzutea bezala  
tigreen orroak.

Haizea delarik sendo  
goibel egotea  
da  
bakardadea,  
zerua hits,  
bihotza ilun  
osotoro desegina.

# II

## Adiskide bat daukat

Jaiki naizenean  
eguzki zegoen nagusi,  
ohondoan nagoela  
ilunak nau hartzara izutzen.

Adiskide bat daukat  
eta mailuki fresko bi,  
ahoa urez betea  
eta esperantza: gaitzerdi!

Ez dakidala gerta  
bakarrik hiltzea

landare ozar bainintzen  
haizkorri eder eta latz batetan.

Urkia laket dut  
leun, lirain, loti  
leiala delako  
eta zuhaitzetan lañoa;

uharteak maite ditut  
berde eta bakarrik,  
urlasterretan lagun  
eta itsasaderretan maitagarri.

---

## I

### *El viento...*

*Cuando sopla el viento fuerte,  
como andar hacia adelante  
es  
la soledad,  
durante el invierno,  
frío el bosque,  
como recoger oloroso laurel.*

*Cuando sopla el viento fuerte,  
como cantar  
es  
la soledad,*

*como oír  
entre el ruido estruendoso de las calles  
los rugidos del tigre.*

*Cuando sopla el viento fuerte,  
estar triste  
es  
la soledad,  
gris el cielo,  
el corazón oscuro,  
enteramente destrozado.*

## II

### *Tengo un amigo*

*Cuando me he levantado  
el sol estaba en su cénit,  
al lado de la cama ahora,  
la oscuridad me angustia de nuevo.*

*Tengo un amigo  
y dos fresas frescas,  
la boca llena de agua  
y esperanza: ¡qué vamos hacer!*

*Que no me sorprenda  
la muerte en soledad*

*a modo de planta salvaje  
en un hermoso y áspero roquero.*

*Me gusta el abedul,  
suave, esbelto, dormilón,  
porque es leal  
y sencillo entre los árboles;*

*me agradan las islas de los ríos  
verdes y solitarias  
entre corrientes compañeras  
y amorosas en las desembocaduras.*

---

### III

## Islandia

Argiari heldu guraz  
zurrundu egin zaizkit  
besoak,  
erroiak bailiren  
edo agian belatzak,  
kalakaz baitabilzkit ene ondoan.

Egun batez  
herioak bere azken bisita egin baino lehen  
esaka,  
beren moko lohiez  
ez banaute desegin  
oraino,  
laurdenkatu egin ez banaute,  
heiagora eginen dut  
eta nigar,  
adiskideak dauzkadalako  
oroz lehen  
plazerkide eta ekurutasun-sorburu,  
eta erro sendoak,  
iratzea, elur eta

ihintza,  
iparraizea eta bisutsa,  
sahastsak,  
begi berdeak eta  
gorputz beltzaranak,  
goroldioz leunduriko harkaitz latzak,  
Islandia,  
Larrañe eta  
Jerusalem,  
Txilen, Alemanian eta  
Kalifornian utzi ditudan  
arimapurrak,  
Vivaldiren urtaroak,  
Machadoren poemak...

Egun horretan,  
hil egin ez banaute  
herraz eta adurrez  
oraindik  
nigar eginen dut eta  
heiagora.

---

### III

## Islandia

*Queriendo alcanzar la luz  
se me han entumecido los brazos,  
pues como si fueran cuervos,  
o grajos quizás,  
a mi alrededor  
andan graznando.*

*Si algún día  
antes de que la muerte me haga su última visita  
si murmurando  
con sus sucios picos  
no me han deshecho aún,  
si no me han descuartizado,  
gritaré  
y lloraré,  
porque son los amigos,  
ante todo,  
mis compañeros en el placer  
y de tranquilidad manantial,  
y las raíces profundas,  
el helecho, la nieve*

*y el rocío,  
el viento del norte y el orvallo,  
los sauces llorones,  
los ojos verdes  
y los cuerpos morenos,  
las rocas reblandecidas por el musgo,  
Islandia,  
Larrañe  
y Jerusalén,  
los trozos de alma que he dejado  
en Chile, Alemania  
y California,  
las estaciones de Vivaldi,  
los poemas de Machado...*

*Ese día,  
si aún no me han matado  
con odio y baba  
gritaré  
y lloraré.*

---

## IV

### Plazerrezko kantua

Zure sorbaldaren gainean  
pausatu dut burua,  
bihotzak parez pare  
eta gorputzak  
elkarrekin  
bakean,  
berdearen freskotasunaz  
jauregi eder baten  
etxaurrea  
untzorriek bezala,  
hala hartu zaituztelako  
ene eskuek  
desiraz.

Zure gorputz osoaren  
ederra senditu dut,  
usaindu eta  
dastatu,  
zure aurpegiaren azala

ferekatu dudanean  
neureaz.

Enbatak jotzen du  
arimaren itsasagerretik,  
liburuetako goroldioetan  
sortzen  
bizitza,  
tristura eta  
maitasun poemak,  
ur garbiak leuntzen ditu  
harri koskor eta  
desesperoak,  
dantzaz,  
doinuz,  
laguna,  
plazerra  
ezagutu dut eta.



---

**IV**  
***Canción de placer***

*Sobre tu hombro  
he puesto mi cabeza,  
al par los corazones  
y nuestros cuerpos  
juntos  
en paz,  
pues como la hiedra  
con la frescura del verde  
la fachada  
de un hermoso palacio,  
así te han cogido  
con deseo  
mis manos.*

*De tu cuerpo entero  
he sentido  
la hermosura,  
olido  
y gustado,*

*cuando con la piel de tu cara  
he acariciado  
la mía.*

*Sopla el viento marino  
por los acantilados del alma,  
entre los musgos de los libros  
surgen  
la vida,  
la tristeza  
y los poemas de amor;  
moldea el agua limpia  
los cantos rodados  
y la desesperanza,  
pues bailando,  
con música,  
amigo,  
he conocido  
el placer.*

---

## V Orhiko Gailurrean

Adiskidea  
Orhiko bortuan  
ikusten den  
txoria bezalako da,  
urrun  
ia ezin ikutuzkoa,  
eta hurbiltzerakoan  
edozein unetan  
desager daitekeena.

---

V

*En la cumbre del Orhi*

*Un amigo  
es como un pájaro  
que se ve  
en la cumbre del Orhi,  
lejano,  
casi inalcanzable,  
y que al acercarnos  
puede desaparecer  
en cualquier momento.*

---

## VI Aspaldiko irudi bat

Hadassa Moscovici-ri

Arratsaldeko sei t'erdia dira,  
martxoko azken ostegunekoak, ostegun saildukoak,  
eta pinuen arteko pagoa bezala uzten nauden egun goibelak  
zure oroitzapena ekarri dit.

Oso da aspaldikoa  
zugandik daukadan gomuta,  
oraino ere zugana nerakarren gogoa,  
hain sarkor,  
hainbeste zentzazio bipilen bilgunea.

Linguistika-institutuko liburutegian ezagutu zintudan,  
eta eder ez izateagatik ere, erakargarri agertu zintzaizkidan,  
begi beltz, ile kirru eta jantzi  
ez hain egoki.  
Berbetan hasi ginen eta  
behingoa jakin nuen,  
oi Hadassa, zein zen zure kementa,  
zelakoa zure oldar eta larderia. Baina ez ninduzun izutu.  
Eta maitatzen hasi nintzaizun.  
Eta hiru egungarrenean  
tea hartzera gomitatu ninduzun zeure gelara.

Beti bezala behera mintzo,  
gauza asko kondatu zenidan.  
Errumanian jaio zinela,  
eta ezin zenezakeela musikarik entzun eta irakurri batera.  
Israelen hazi,  
eta amarekin ez zinela lar ondo konpontzen;  
Norwegian eman zenuela neskazaroa,  
eta aita oroz lehen maite;  
azkenengo hamabost urtean Hamburg-en bizi izan zinela,  
eta laster ostera ere itzultzekotan zeundela.  
Eta orduan  
Hamburg-eko zerua hodeitzarrek bezala  
ilunak ninduen harrapatu.

---

## VI

### *Una imagen antigua*

*A Hadassa Moscovici*

*Son las seis de la tarde  
del último jueves de marzo, de jueves santo,  
y este día gris que me hace sentir como haya entre pinos  
me ha traído tu recuerdo.*

*Es un recuerdo antiguo  
el que de ti tengo,  
recuerdo que aún me lleva hacia ti,  
tan profundo,  
centro de tantas sensaciones vigorosas.*

*Te conocí en la biblioteca del Instituto de Lingüística,  
y aun con no ser hermosa, te me hiciste atractiva,  
de ojos negros, pelo rizado y ropa  
no tan adecuada.*

*Comenzamos a hablar  
y rápidamente me di cuenta,  
oh Hadassa, cuánta era tu energía,  
cual tu fuerza y poder. Pero no me asustaste.  
Y te comencé a querer.  
Y al tercer día  
me invitaste a tomar un té en tu habitación.*

*Hablando quedamente como siempre,  
me contaste muchas cosas.  
Que habías nacido en Rumanía,  
y que no eras capaz de escuchar música y de leer a la vez.  
Que te criaste en Israel,  
y que no te arreglabas demasiado bien con tu madre;  
que habías pasado la pubertad en Noruega,  
y que querías sobre todo a tu padre;  
que hacía quince años que vivías en Hamburgo,  
y que ibas a volver allí en poco tiempo.  
Y entonces,  
al igual que los nubarrones del cielo en aquella ciudad,  
así se apoderó de mi la oscuridad.*

---

Gero birritan egin nizun bisita.  
Zure etxean sartzeko oinetakoak erantzi nituen,  
eta iparralde arreak hiri ederrorren arratsalde hitsetan  
berba egin,  
berbaz luze,  
segundoak itzuri nahiko balira bezala.

Lakuetan barrena ere ibili ginen,  
elkarri bihotzak erakutsi,  
eta behin,  
gualdera afaldurik,  
lehen egun hartatik geneukan elkarrizketa apur baten moztuta,  
esan zenidan:  
'horretarako ez dago aukerarik'.  
Eta segitu nuen pozik zure berbak,  
zure murmurio leunak entzuten.

Gero alde egin nuen.

Luzaro  
elkarri segitu genion idazten,  
elkar  
gutunez eta gogoetez maitatzen.  
Baina firu hori ere eten egin zen, Hadassa.

Eta haatik, egun,  
hain ainube eta ozpel senditzen dudan martxoko arratsalde honetan,  
Hadassa,  
haatik, oraino ere maite zaitut,  
Hamburg-eko lili beltzarana,  
Bihotz bortitzeko neska panpoxa.

---

*Más tarde te visité dos veces.  
Me descalcé para entrar en tu casa,  
y durante tristes tardes de esa hermosa ciudad del gris norte  
hablamos,  
hablamos largo tiempo,  
como si los segundos se nos quisieran escapar.*

*Anduvimos por los lagos,  
nos abrimos el uno al otro el corazón,  
y una vez,  
tras la cena al atardecer,  
interrumpiendo la conversación que manteníamos desde aquel primer día me dijiste:  
"para eso no hay ninguna posibilidad".  
Y continué con alegría oyendo tus palabras,  
tus suaves murmullos.*

*Después me marché.  
Durante largo tiempo  
continuamos escribiéndonos,  
queriéndonos por carta  
y pensamiento.  
Pero ese fino hilo también se rompió, Hadassa.*

*Y hoy sin embargo,  
en esta tarde de marzo que siento tan oscura y sombría,  
Hadassa,  
aún te quiero,  
morena flor de Hamburgo,  
gentil muchacha de poderoso corazón.*

---

## VII

### Berlin

Guillermo Galartzari

Ordoki zabaletan zehar  
Erteuropako lautaden iparraldean  
aurkitu haut egun,  
Prusiako basoetan gaindi  
haritzak, pagoak eta  
masusta gorriak hazten diren  
lakuen ibaiondoetan.

Praga, Budapest, Viena, Zürich, Munike,  
Erteuropan,  
Hofmannsthal, Roft, Kafka, Rilke,  
juduak eta kristauak,  
kaletren eta kafetxeak,  
gaztanpastel eta antzokiak,  
alemanezko poemak eta  
amodiozko minak.

Eta hire musika pianoan entzuten dudala,  
bihotza banatzen zaidak  
hire kaleak —eta eskuak— bezala: alde batean  
"Unter den Linden",  
bestean  
"Kurfürstendamm",  
alde batean desira,  
etsipena bestean.

Zeren harresi bat  
erdi-erdian sortu baitugu,  
zornetartez inguratua,  
iluntze hotz luzeetan  
kearteko elkarrizketarik eta  
musu ezkuturik ikusiko ez  
dituzten tabernarik gabekoak,  
satsez beteak, eta saguez eta  
oroimenez,  
gerraren batek egindako zuloak  
agerian,  
eta gure arteko destainek.  
Eta haatik ere higan zagok  
ene esperantza,  
hiriaren gaineko gaztelua  
betiko zabalduko duen Erteuropako oldarra,  
koldarkeriaren zantzuak  
deseginen dituen  
geure gorputzen eta izpirituen  
lehen promesa.



---

## VII

### Berlin

A Guillermo Galartza

*Por las amplias planicies  
al norte de las llanuras de Centroeuropa  
te he encontrado hoy,  
más allá de los bosques de Prusia  
en las riberas de lagos  
donde crecen robles, hayas  
y moras rojas.*

*Praga, Budapest, Viena, Zurich, Munich,  
Centroeuropa,  
Hofmannsthal, Roth, Kafka, Rilke,  
judíos y cristianos,  
tranvías y cafés,  
pasteles de queso y teatros,  
poemas en alemán  
y penas de amor.*

*Mientras escucho tu música,  
se me divide el corazón,  
como tus calles —y tus manos—: a un lado  
"Unter den Linden",  
a otro  
"Kurfürstendamm",  
a un lado el deseo,  
el abatimiento al otro.*

*Pues hemos creado  
un muro entre nosotros,  
rodeado de callejas  
sin tabernas que vean  
conversaciones entre humos  
y besos escondidos,  
llenas de basura y ratas,  
y de recuerdos,  
y de agujeros a la vista producto de alguna guerra,  
y de nuestros mútuos desprecios.  
Y aún así en ti está todavía  
mi esperanza,  
la fuerza de Centroeuropa que para siempre abrirá  
el castillo que domina la ciudad,  
primera promesa  
de nuestros cuerpos y espíritus  
que deshará  
todo vestigio de cobardía.*

---

## VIII

### Gaur arratsaldean

Gaur arratsaldean  
maite duan lagun bategaz egon haiz berbaz,  
etxean, bibliotekaren erdian  
bazkaldu zareten mahai borobilaren inguruan.  
Hotz zuan kanpoan eta  
luze ibili zarete, astiro, honetaz eta hartaz,  
Espriu irakurri duzue, eta Kavafis, eta  
Miquel Martí i Pol eta Yeats, eta Machado,  
maitasunaz mintzatu zarete, eta bakartadeaz,  
eta horrelako abagadunetan aipatzen diren topiko guztiez,  
beren buruekin bakea egin ez duten askok  
hainbeste gorrotatzen dituzten gauzez.  
Eta zorionsu izan haiz  
oso maite dualako adiskideori.

Azkenean baina,  
itaundu dioanean adiskidantza  
lotura sendoago batez josi gura lukeen,  
ezetz erran dik, ezin duela,  
eta zorionsu izanagatik ere, nigar  
egin duk heure bihozparrenean,  
berak ez ikusteko moduan.

Agur egitean  
maitasunez eamn diok musu,  
heriotzak  
bakartadean harrapa hintzakeelako  
beldurrez betea.

---

## VIII

### *Hoy por la tarde*

*Hoy por la tarde  
has estado con ese amigo que tanto quieres,  
en casa, en medio de la biblioteca,  
alrededor de la mesa redonda en la que habéis comido.  
Hacia frío fuera  
y habéis charlado largo, lentamente, de esto y aquello,  
habéis leído a Kavafis,  
y a Miquel Martí i Pol, a Yeats y a Machado,  
habéis hablado del amor, de la soledad,  
y de esas cosas que se hablan en tales ocasiones,  
de esas cosas que los que no han hecho la paz consigo mismo  
tanto odian.*

*Y has sido feliz  
porque quieres mucho a ese amigo.*

*Pero al final,  
cuando le has preguntado si querría  
sostener esa amistad con un hilo más fuerte,  
te ha dicho que no, que no puede,  
y aún feliz,  
has llorado en lo más profundo de tu corazón,  
de manera que él no se diera cuenta.*

*Al despedirte  
le has besado con amor  
lleno de miedo  
de que la muerte  
pueda sorprenderte solo.*

---

## IX

### Tamarindoak

Atzo,  
Etxe Pherdiaren azpiko tamarindoak ikusi nituen  
ostera ere.  
Hogeita hamazazpi urte dauzkat eta  
luze gabe  
hogeita hamazortzi beteko ditut,  
Biarritzeko eta Usategiko tamarindoak oro  
bezain ederrak,  
saparen kemenaz eta biziguraz  
arrakaltzen diren tamarindoak oro  
bezain lirain eta indargeak,  
ttiki eta biziak,  
lur eta lika beltzez lotuak,  
hiltzera kondenatuak: tamarindo sotil, zirats, zabal eta ahulak.

Egun,  
itsasagerreko tamarindo horiek oro gogoratzean,  
hogeita hamazazpiurte dauzkadala eta  
luze gabe hogeita hamazortzi betetzeko nagoenean,  
lainoarteko eguzkiak argitzen duenean itsasoa  
abenduaren batean,  
ostera ere egin dut gogoeta maitasunaz eta biltzaz,  
amodioz arrailtzea delako biltzea,  
zapi zaharren moduan higtzea,  
Ameriketara,  
Atlantikoaren gainetik hegazkinez egindako bidaien antzekoa  
esperantza onez bete eta  
zaratotsez, lekurik ezaz, ondokoengana ezin biltzeaz,  
hainbeste oztopo eta atxakia direla bide,  
nekeziar bukatua.

---

## IX

### *Tamarindos*

*Ayer*  
*vi de nuevo*  
*los tamarindos de debajo de Etxe Pherdia.*  
*Tengo treinta y siete años*  
*y pronto*  
*cumpliré treinta y ocho,*  
*tan hermosos como*  
*todos los tamarindos de Biarritz y Usategi,*  
*como todos los tamarindos*  
*esbeltos y frágiles*  
*que se hienden de energía y deseo de vivir,*  
*pequeños y vivos*  
*ligados con tierra y resina negra,*  
*condenados a morir: elegantes, hermosos, anchos y débiles.*

*Hoy*  
*al recordar todos esos tamarindos,*  
*cuando tengo treinta y siete años*  
*y estoy a punto de cumplir treinta y ocho,*  
*cuando en este uno de diciembre*  
*el sol entre la neblina luce en el mar,*  
*he pensado de nuevo en el amor y en la vida,*  
*porque vivir es hendirse de amor,*  
*ajarse como trapo viejo,*  
*como esos viajes en avión a América por encima del Atlántico llenos de*  
*grandes esperanzas*  
*y acabados con cansancio*  
*por el ruido, por la falta de espacio, por no poder acercarse al otro,*  
*por tantos obstáculos y excusas.*

---

Egun,  
luze gabe hogeita hamazortzi urte betetzeko nagoenean eta  
tamarindoekin oroitzean,  
ostera ere konturatu naiz  
mila urte igaro eta  
urak  
beti segituko duela bere bidean.

---

*Hoy,  
cuando dentro de poco voy a cumplir treinta y ocho años,  
al acordarme de los tamarindos,  
me he dado cuenta de nuevo  
que tras haber pasado mil años  
el agua  
continúa su camino.*

---

## X

### Panta rei

Ura bezalakoa naiz,  
libre, labanakor, orakaitza,  
inon edeten ez naizena,  
inork hartzen ez nauena  
eta erreten pare bat igarota,  
malkorik malko  
itsasora heltzen naizena.

Ura bezalakoa naiz,  
nigar eta laino,  
euri eta lanbro,  
itsas zabaleko tanta bat,  
edo lbañetako elur bustia bezalakoa,  
libre, bakarti eta harrapakaitza,  
eta horratik desertu izan nahiko nukeena,  
oasiaren bila abiatuta  
nigar berdin zenezakeen zeure egarria.



---

**X**  
***Panta rei***

*Soy como el agua,  
libre, resbaladiza, inasible,  
que no cabe en lugar alguno,  
al que no acepta nadie,  
y que pasadas un par de acequias  
de lágrima en lágrima  
llega a la mar.*

*Soy como el agua,  
llanto y niebla,  
lluvia y bruna,  
una gota del ancho mar,  
como el aguanieve de Ibañeta,  
libre solitaria e inaprensible,  
y aún así, alguien que quisiera ser desierto,  
para que al buscar un oasis  
en mi tu sed satisfacer pudieras.*

---

## XI

### Southern Comfort

New Orleans-eko taberna  
ketsuetan bezala,  
izerdiz blai eta  
kantuz, eta musikaz, eta  
amodio ezinez  
bizi naiz.

Mutil beltz eder bat  
hurreratu izan balitzait bezala  
tabernaz bestaldetik  
begiratu eta gero,  
eta bourbon kopa bat  
nahi ote nukeen galdetu.

Eta haren gorputzean  
ito izan banintz bezala,  
eta beraren mihiak garbiturik,  
neure azpiko  
hanka, bular eta beso sendo horietan  
korapilatuta,  
bizkarrean zehar  
bourbon kopa gozoa  
isuri izan balit bezala

---

**XI**  
***Southern Comfort (Placer del Sur)***

*Vivo  
como en las tabernas  
llenas de humo de Nueva Orleans,  
bañado de sudor y  
de canciones, y de música,  
y de amores imposibles.*

*Como si un bello muchacho negro  
se me hubiese acercado  
después de haberme observado  
desde el otro lado de la taberna,  
y me hubiese preguntado  
si querría una copa de bourbon.*

*Y como si me hubiese sofocado  
con su cuerpo,  
y habiéndome enjuagado con su lengua,  
y enredado en aquellos brazos y fuerte pecho  
debajo de mi,  
como si hubiera derramado  
a lo largo de mi espalda  
la dulce copa de bourbon.*

---

## XII

### Don't give up upon me

(Salomon Burke)

Agerian uzten ditu  
itsasbeherak  
hondartzako beltzuneak,  
gauaren ilunak  
ilargiaren zuria.  
Errepidea uzten du libre  
semaforo berdeak,  
eta lurraren azala garbi  
joan badoan larapoten samaldak.  
Ez nazaala, otoi, inoiz abandona!

---

**XII**  
***Don't give up upon me***

*(Salomon Burke)*

*Deja al descubierto  
la marea baja  
las negruras de la playa,  
y la oscuridad de la noche  
la blancura de la luna.  
Deja libre la carretera  
el semáforo verde,  
y limpia la faz de la tierra  
la nube de langosta que se va.  
¡No me abandones jamás!*

---

1953ko abenduaren 6an jaio zen Santurtzin Andolin Eguzkitza Bilbao. Deustuko Unibertsitateko Filologia Erromaniko ikasketak bukatu ondoren ikasten segitu zuen Espainian, Alemanian eta Estatu Batuetan. Linguistika Orokorreko irakasle titularra izan zen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Ibar Ezkerrean jaio den Euskaltzaindiko lehen euskaltzain osoa.

Literatur alorrean eleberria, poesia eta itzulpengintza landu ditu. 1979an argitaratu zuen “Lehen orenean” eleberri laburra eta “Ondoren Urkidian zehar” 1987an eta “Herioaren itzalpeetan” 1998an. 1986an argitaratu zuen “Orhiko mendirantz urratsez urrats” lehen poema-liburua, 1993an “Mila urte igaro eta, ura bere bidean” eta 2001ean antologia elebidun bat “Quan plou en les entranyes / Erraietan barrena euria egiten digunean”. Itzulpengintzari dagokionez, “Konstantinos Kavafis: antologia bat” argitaratu du ele bitara, euskaraz eta grekoz, Olga Omatosekin lankidetzan, eta Günter Grass aleman idazlearen “Batzarra Telgten” deritzon eleberria (2002).

Andolin Eguzkitza 2004ko martxoaren 24an hil zen.

---

*Andolin Eguzkitza Bilbao nace el 6 de diciembre de 1953 en Santurtzi. Tras obtener la licenciatura en Filología Románica en la Universidad de Deusto amplía estudios en España, Alemania y Estados Unidos. Fue Profesor Titular de Lingüística general en la Universidad del País Vasco y el primer miembro de número de La Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia nacido en la Margen Izquierda.*

*Su obra literaria abarca tanto la narrativa como la poesía y la traducción. Publica en 1979 la novela corta “Lehen orenean” a la que seguirán “Urkidian zehar” en 1987, y “Herioaren itzalpeetan” de 1998. En 1986 publica su primer libro de poemas “Orhiko mendirantz urratsez urrats” seguidos por “Mila urte igaro eta, ura bere bidean” en 1993 y la antología bilingüe en catalán y euskera “Quan plou en les entranyes /Erraietan barrena euria egiten digunean”, 2001. En el campo de la traducción y en colaboración con Olga Omatos ha realizado la edición bilingüe “Konstantinos Kavafis: antologia bat” y la novela de Günter Grass “Batzarra Telgten”...*

*Andolin Eguzkitza fallece el 24 de marzo de 2004.*

# **SANTURTZIKO UDAL LIBURUTEGI SAREA**

## **RED DE BIBLIOTECAS MUNICIPALES DE SANTURTZI**

### **LIBURUTEGI NAGUSIA** **BIBLIOTECA CENTRAL**

Plaza Juan José de Mendizabal, s/n  
E-mail: biblioteca@ayto-santurtzi.es  
Tel. 94 461 08 54 • Fax. 94 462 57 15

### **CABIECESKO LIBURUTEGIA** **BIBLIOTECA DE CABIECES**

Antonio Alzaga, 64  
Tel. 94 483 82 32

### **LAS VIÑASKO LIBURUTEGIA** **BIBLIOTECA DE LAS VIÑAS**

C/ Bullón, s/n  
Tel. 94 483 73 33

### **SANJUANGO LIBURUTEGIA** **BIBLIOTECA DE SAN JUAN**

Juan Sebastián Elcano, 11-13  
Tel. 94 462 85 85

**SANTURTZIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI**  
**BIZKAIA**



**KULTURA ARLOA**  
**AREA DE CULTURA**